



LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

EGUNGO UDAL LIBURUTEGIAREN ERAIKINA ERABERRITZEA,
KONTSULTATEGIA ERAIKIN HORRETAN EGOKITZEKO

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2020

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- II. Kap.: Ekintzaitzarako laguntzak.
- III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarritzko zerbitzuetarako laguntzak.
- VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

Morgako Udalak osasun-zentroa lekuz aldatzeko erabakia hartu zuen, lehengoaren instalazioak –udaletxearen beheko aldean zegoen– nahikoa hondatuta zeudelako.

Udalak udaletxetik hurbil zegoen eraikin bat baliatzea zeukan, bertan liburutegia eta KZgunea zeudela, eta beharrezkotzat jo zuen eraikinaren erabilera aldatzea han kontsultategia jartzeko, Morgako bizilagunei kalitate hobeko zerbitzua eskaintzarren.

5.- Inbertsio totala: 202.508,63 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 69.024,37 euro
Finantzatzeko beste iturri batzuk: 24.660,40 euro

7.- Onuraduna:

MORGAKO UDALA

- Publikoa
- Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

Morgako Udala landa-eremu beteko udalerria da –G1 landatasun-maila dauka–, Busturialdeko eskualdekoa (Bizkaia).

9.- Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:

Andra Mari 18. 48115 Morga (Bizkaia)

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Eraikin bakan bat egokitu da Morgako Andra Mari auzoko 18. zenbakian –lehen, liburutegia eta KZgunea zeuden han–, osasun zentro gisa erabiltzeko. Egokitzapenak baoak moldatzea eta lekuz aldatzea ekarri du. Jarduketa egin aurretik, osasun-zerbitzua udaletxearen beheko solairuan eskaintzen zen, baina instalazioak oso hondatuta zeuden.

Eraikinean egindako lanek zorrotz bete dituzte indarrean dagoen eraikuntza-araudiaren eskakizunak. Gainera, eraikinaren ingurutzaila nabarmen hobetu da eta, horren ondorioz, gauzatutako jarduketek eraikinaren energia-beharrak murriztu dituzte; izan ere, fatxada loditzeko lanen eraginez, berokuntzaren urteko energia-eskaria % 30 baino gehiago murriztu da.

Barruko akaberak aukeratzekoan, erosotasuna, iraunkortasuna eta mantentzeko erraztasuna izan dira irizpide nagusiak, baina beste alderdi tekniko batzuk ere aintzat hartu dira, hala nola labainkortasuna eta suarekiko erreakzioa.

Banaketari dagokionez, esan beharra dago gela guztiak atari eta itxarongela baten inguruan antolatzen direla, bertara hegoaldera begira dagoen fatxadatik sartzen dela. Itxarongela zeharkatuta, medikuaren kontsulta, erizainaren gela eta komun egokitura sartzeko modua dago. Gainera, material medikoa gordetzeko biltegi txikia dauka, erizainaren gelarekin lotuta. Bestalde, medikuaren kontsulta eta erizainaren gela komunikatuta daude, osasun-langileen jarduera errazteko.

Eraikinak udalaren ur-hornidurako eta energia elektrikoaren hornidura-sarea baliatzen ditu eta telekomunikazioetan, zuntz optiko bidezko konexioa instalatu da. Azkenik, ur beltzak biltzen dira Andra Mari auzoak darabilen hobi septikoan.

Kokaleku berriari esker, kontsultategiko erabiltzaileentzako irisgarritasuna ere hobetu da, minusbaliatuentzako gunea duen aparkaleku publiko batetik gertuago baitago.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerrri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Osasun-zentro berriak Morgako biztanleei bakarrik ematen die zerbitzua, hots, 430 biztanle ingururi. Osasun-laguntzako zerbitzuak hobekuntza kualitatibo nabarmena izan du proiektu hau gauzatuta, instalazioak eta irisgarritasuna hobetzeari dagokienez.

Jarduera honi esker, Morgako biztanleek ez dute alboko herri batera edo eskualdeko erreferentziako osasun-zentrorra joan behar lehen mailako osasun-laguntza jasotzera. Horrek morgarren bizi-kalitatea hobetzen du eta osasun-arloko lehen mailako arreta jaso ahal izateko joan-etorriak gutxitzen ditu. Eta, era berean, jasangarritasuna hobetzen da eta karbono-aztarna txikitzen.



Leader dirulaguntza erabiliz, Morgako Udalak udalerrian lehendik zegoen azpiegitura bat ondu du arkitekturaren ikuspegitik, bertako biztanleentzako osasun-zerbitzua hobetzeko xedez, eta hala, landa-eremuan bizi diren pertsonen bizi-kalitateak ere hobera egin du.